

## BILBOK LGTBIQ+ PERTSONEN AURKAKO DISKRIMINAZIO ORO GAITZESTEN DU

- **Homofobiaren, Lesbofobiaren, Transfobiaren, Bifobiaren eta Intersexfobiaren aurkako Nazioarteko Egunean, Udalak sentsibilizazio-kanpaina berri bat jarri du abian, LGTBIQ+ pertsonen aurkako bereizkeria-mota oro baztertzeko eta salatzeke.**
- **Udalak prebentzioa eta herritarrak sentsibilizatzea planteatzen ditu estrategia gisa, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko uria lortze aldera.**

(*Bilbon, 2022ko maiatzaren 16an*).- Bilboko Udalak bihar, maiatzak 17, Homofobiaren, Lesbofobiaren, Transfobiaren, Bifobiaren eta Intersexfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, sentsibilizazio-kanpaina berri bat jarri du abian, **LGTBIQ+ pertsonen aurkako bereizkeria-mota oro baztertzeko eta salatzeke**. Izan ere, sexu-aniztasunarekiko eta LGTBIQ+ pertsonetako fobia munduan hedatuen dagoen gorroto-moduetako bat da.

Kanpaina honetarako diseinatutako irudian, atzealde gorrian, gomutatzen den eguna da protagonista. Egunaz gain, honako esaldi hau dago nabarmenduta: **"giza eskubideak dira"**, sexu-eskubideak giza eskubideak direla azpimarratzeko, Giza Eskubideak eta Sexu Eskubideak Unibertsalak direla azpimarratzeko, *"inor ez dela beste inor baino gehiago eta eskubide horiek ez daudela tradizio edo sinesmen kulturalen mende"* Berdintasuneko Siletik zehaztu dutenez. .

Udalak planteatzen du, estrategia gisa, Bilboko herritarren prebentzioa eta sentsibilizazioa, bereizkeriarik eta indarkeriarik gabeko uria lortzeko –uria osotasunean, auzoen eta kaleen artean bereizketarik egin gabe–, batez ere errespetua nagusi eta benetako berdintasuna, normalizatua eta aurreiritzirik gabea, izango dituen.

*"Gorroto-diskurtsoak ahozko eta idatzizko adierazpenak dira, Bilboko herritarrak, gure auzokide izan daitezkeen pertsona-taldeak, lagunak eta, besterik gabe, lanera joatean gurutzatzen ditugun pertsona ezagunak mehatxatzen dituztenak. "Udalean elkarbizitza aske eta seguruaren aldeko apustua egiten dugu, errespetuan, tolerantzian eta aniztasunean oinarrituta"* esan du **Nekane Alonsok**, Berdintasuneko zinegotziak, eta erantsi du *"balioen uriaren aldeko apustua sendotzeko oinarria dela"*.

*"Bilboko Udalak uriko LGTBIQ+ kolektiboen elkarlana eta aktibismo handia ditu gizarte bidezkoagoa, errespetuzkoagoa eta integraztaileagoa elkarrekin eraikitzeke"* azaldu du zinegotziak. *"Berdintasunerako eta sexu- eta genero-orientazioagatik diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen alde lan egiten jarraituko dugu, aniztasuna nahi bezala bizitzea sustatzeko"* gehitu du.

Horrela, bada, Udalak pertsona guztiek dituzten eskubide sozialen inguruan sentsibilizatzen jarraitzen du. Kanpaina hori hedatuz, bai euskarri fisikoetan eta hiri-altzarrietan, bai formatu digitalean ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) web orrian eta sare sozialetako udal-kontuetan), Udalak sexu- eta genero-aniztasuna aldarrikatzen ditu, eta LGTBI-fobiaren aurkako erabateko gaitzespena adierazten du.

Bilboko Udalak LGTBIfobia gaitzesteko konpromiso aktiboa, indibiduala eta kolektiboa hartzeko deia egin du, eta herritar guztiak animatu nahi ditu *“Nazioarteko Egun hau dela-eta urian antolatzen diren mobilizazio, kanpaina eta gainerako aldarrikapen-jardueretan parte hartzera”*.

**Sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko apustua uri inklusibo, anitz eta solidario baten oinarri gisa balioak lantzen dituzten bi udal-estrategiaren barruan dago: Bilbao Balioen Hiria eta Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH).**

## **SARE SOZIALAK**

- **BILBOKO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO BERDINTASUNA:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)

## BILBAO RECHAZA CUALQUIER TIPO DE DISCRIMACIÓN CONTRA LAS PERSONAS LGTBIQ+

- El Ayuntamiento, en el marco del Día Internacional contra la Homofobia, la Lesbofobia, la Transfobia, la Bifobia y la Intersexfobia, ha puesto en marcha una nueva campaña de sensibilización para mostrar el rechazo y denunciar cualquier tipo de discriminación contra las personas LGTBIQ+.
- Desde el Consistorio plantean como estrategia la prevención y la sensibilización a la ciudadanía bilbaina para conseguir una ciudad libre de discriminación y violencia.

*(Bilbao, a 16 de mayo de 2022).*- El Ayuntamiento de Bilbao, por el **Día Internacional contra la Homofobia, la Lesbofobia, la Transfobia, la Bifobia y la Intersexfobia**, que se conmemora mañana **17 de mayo**, ha puesto en marcha una nueva campaña de sensibilización para **mostrar el rechazo y denunciar cualquier tipo de discriminación contra las personas LGTBIQ+**. De hecho, la fobia hacia la Diversidad Sexual y las personas LGTBIQ+ es una de las formas de odio más extendidas en el mundo.

En la imagen diseñada para esta campaña, con un fondo rojo, asume todo el protagonismo la efeméride que se conmemora. Además de la fecha, resalta la frase **“son derechos humanos”**, para incidir que los derechos sexuales son derechos humanos, que los Derechos Humanos y Sexuales son Universales, *“ninguno tiene prioridad sobre otro y no dependen de las tradiciones o creencias culturales”*, han matizado desde el Área de Igualdad. .

Desde el Consistorio plantean como **estrategia la prevención y la sensibilización a la ciudadanía bilbaina para conseguir una ciudad libre de discriminación y violencia** - la ciudad al completo, sin distinción entre sus barrios y calle- donde impere el respeto sobre todo y exista una igualdad real, normalizada y libre de prejuicios.

*“Los discursos de odio son manifestaciones verbales, escritas que amenazan a ciudadanas y ciudadanos de Bilbao, a grupos de personas que pueden ser nuestras vecinas, amigos y simplemente personas conocidas con las que me tropiezo al ir a trabajar. Desde el Ayuntamiento apostamos por una convivencia libre y segura, basada en el respeto, la tolerancia y la diversidad”*, ha señalado **Nekane Alonso**, Concejala de Igualdad, y ha añadido que *“es la base para consolidar nuestra apuesta por una ciudad de valores”*.

*“El Ayuntamiento de Bilbao cuenta con la colaboración y gran activismo de los colectivos LGTBIQ+ presentes en la Villa para construir conjuntamente una sociedad más justa, respetuosa e integradora”*, ha explicado, la Concejala. *“Seguiremos trabajando por el derecho a la igualdad y a la no discriminación por motivo de orientación sexual y de género con el objetivo de promover la libre vivencia de la diversidad”*, ha anunciado.

Así, el Consistorio continúa con la **labor de sensibilización sobre los derechos sociales que poseen todas las personas**. A través de la difusión de esta campaña, tanto en soportes físicos y mobiliario urbano como formato digital en la web de [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) y en las cuentas municipales de las redes sociales, el **Consistorio reivindica la diversidad sexual y de género y expresa un rechazo absoluto contra la LGTBI-fobia**.

Desde el Ayuntamiento de la capital vizcaina **se hace un llamamiento a la necesidad de adoptar un compromiso activo, individual y colectivo de rechazo a la LGTBI-fobia**, *“animamos a toda la población a participar en cuantas movilizaciones, campañas y demás actividades reivindicativas que se organicen en la ciudad con motivo de este día Internacional”*.

**La apuesta de Bilbao por la diversidad sexual y de género** se enmarca en dos estrategias municipales donde se trabajan los valores como base de una ciudad inclusiva, diversa y solidaria, a través de **Bilbao Balioen Hiria y Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda 2030 de Naciones Unidas**.

## REDES SOCIALES

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO BERDINTASUNA:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)